

BERDINTASUNARI DAGOZKION ALDAKETAK

2019/6 eta 2019/8 Errege Lege-Dekretuak



Lanaldia | Urruneko lana

Langileek lanaldiaren **iraupen** eta **banaketaren** egokitzapena zein zerbitzua bera emateko eraren moldaketa (**urruneko lana** barne) eskatzeko eskubidea dute (Lang. Est. 34.8 art.)

Kontziliazio hori posible izango da:

- mendeko senidea zaintzeko
- 12 urte arteko adingabea edo desgaitasuna duen pertsona zaintzeko.

Eskubide horren erabileraren baldintzak **negoziazio kolektiboaren** bidez adostuko dira. Edozein kasutan, enpresa eta eskatzailearen artean **negoziazio prozedura bat irekiko da** (30 egun gehienez) eta horren ondoren enpresak idatziz langilearen proposamena onartzen duen, ordezkoko aukerak planteatzen dituen edo **ez duen onartzen** adierazi beharko du (azken kasu horretan ezezkoaren arrazoi objektiboak eman behar direlarik).



Erantzunkidetasuna edoskitzaroan

Edoskitze **guraso biei** hedatzen zaie.

Eskubidea **9 hilabetera arte** enpresaren ordaindutako baimena da, gurasoek iraupen eta eraentza desberdinarekin hartzen badute.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12

Kasu horretan, lanaldiaren murrizketak soldataren murrizketa dakar 9 eta 12. hilabeteen artean.

Eskubidea **12 hilabetera** arte luzatu liteke guraso biek iraupen eta eraentza berdinari heltzen badiote.

Azken kasu horretarako, gurasoetako bati soldataren **%100era iristea ahalbidetuko dion Gizarte Segurantzaren prestazioa** sortu da.



Aitatasuna | Amatasuna

Haien ordezkari prestazio bakar bat sortu da, **adingabeen jaiotza eta zaintza** izenekoa.

Baimen horren iraupena **16 astean** finkatu da, nahiz eta aitatasun baimenaren onuradun direnen kasuan aplikazioa progresiboa izango den:

8 aste 2019an >> 12 aste 2020an >> 16 aste 2021ean.

(baimenaren handitzea apirilaren 1ean hasiko da aplikatzen)

LEHENENGO 6 ASTEAK:

- Guraso biek aldi berean eta jaiotza eman eta berehala hartu behar dira.

(2019an lehenengo bi asteak eta 2020an lehenengo 4 asteak)

BAIMENAREN GAINERAKOA:

- Gurasoek nola banatu erabaki dezakete, betiere astebeteko aldietan, modu etenean edo etengabean.
- Seme-alabek 12 hilabete egin arte.
- Enpresari 15 eguneko aurrerapenarekin jakinarazi behar zaio.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA